

# SEXU ETA GÉNERO ANIZTASUNA HONDURASEN

(TEGUCIGALPA ETA LA CEIBA)



[www.kooperaldarte.org](http://www.kooperaldarte.org)  
[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)




**IZENBURUA:** Sexu eta genero aniztasuna Hondurasen (Tegucigalpa eta La Ceiba)

**EGILEAK:** Lala Mujika eta Fernando Altamira

**LAGUNTZAILEA:** Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua.

**DATA:** 2017ko Uztaila



Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturiko *Sexu joera eta genero nortasunagatiko gorroto delituak, ikuspegi global batetik* proiektuaren barruan garatutako lanaren emaitzetako bat da.



**ALDARTE**

Berastegi kalea 5-5 48001 Bilbo

944237296

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

## AURKIBIDEA

|                                                           |           |
|-----------------------------------------------------------|-----------|
| <b>AURKEZPENA .....</b>                                   | <b>4</b>  |
| <b>TESTUINGURUA .....</b>                                 | <b>6</b>  |
| <b>1. ZENBAIT GALDERA IRADOKITZAILE .....</b>             | <b>9</b>  |
| <b>2. GAUR EGUNGO EGOERARA HURBILTZEKO SAIO BAT .....</b> | <b>10</b> |
| 2.1.    LGTB kolektiboa.....                              | 10        |
| 2.2.    LGTB kolektiboaren kontrako indarkeria .....      | 11        |
| 2.3.    Zer den presazkoa eta zer estrategikoa .....      | 12        |
| 2.4.    Subjektu politikoa.....                           | 12        |
| 2.5.    Sareak .....                                      | 12        |
| 2.6.    Finantziazioa eta lankidetzarako agentziak.....   | 13        |
| <b>3. ANTZEMANDAKO ZENBAIT ERRONKA .....</b>              | <b>14</b> |
| 3.1.    LGTB kolektiboa.....                              | 14        |
| 3.2.    LGTB kolektiboaren kontrako indarkeria .....      | 14        |
| 3.3.    Zer den presazkoa eta zer estrategikoa .....      | 15        |
| 3.4.    Subjektu politikoa.....                           | 16        |
| 3.5.    Sareak .....                                      | 16        |
| 3.6.    Finantziazioa eta lankidetzarako agentziak.....   | 16        |
| <b>ERAKUNDEAK.....</b>                                    | <b>17</b> |
| <b>ELKARRIZKETA GASPAR SANCHEZEKIN .....</b>              | <b>26</b> |

## AURKEZPENA

ALDARTEko bi ordezkari Hondurasen egon ginen 2017ko uztailaren 15etik 30era bitartean. LGBT<sup>1</sup> elkarteekin harremanetan jartzea genuen xede nagusia, haiekin bildu eta LGTBek Hondurasen bizi duten errealitate latzaren berri zuzenean izatea. Hala, pertsona horiek etengabe jasaten duten giza eskubideen urraketa ezagutarazten laguntzea da hemen aurkeztu dugun txosten honen helburuetako bat.

Uztailaren 15etik 21era bitartean, Giza Eskubideen Jarraipena egiteko euskal ordezkariak batekin egon ginen, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez babesteko programaren abaroan bidaia egin baitzuen Hondurasera. Programa horrek, 2016ko edizioan, Honduraseko bi giza eskubideen defendatzaile hartu zituen Euskadin: Dora Oliva eta Denia Mejia. Aste horretan izan genituen bilerei esker eta ezagutu genituen gobernuko erakundeei, gizarte-kolektiboari eta pertsonari esker ezagutu ahal izan genuen zer nolako indarkeria, mehatxu, atentatu, kriminalizazio, judizializazio eta estigmatizazioa pairatzen dituzten giza eskubideen defendatzaileak, herri indigenak, jatorri afrikarrekoak, nekazariak, baita lurraldearen, ingurumenaren, sexu aniztasunaren eta emakumeen defendatzaileak ere; horiei esker egiaztatu ahal izan genuen, halaber, inpunitate ikaragarria dagoela giza eskubideen urraketa kasuetan eta Honduraseko populazioaren ia % 80k pairatzen duela pobrezia<sup>2</sup>.

Lehen aste horretan deigarri egin zitzaigun, bai guri bai euskal ordezkariari, LGTB gaiaren presentzia handia erakunde publikoetan. Nolanahi ere, ukatu gabe erakunde horiek benetako gogoia eta borondate politikoa izan dezaketela LGTB direnek pairatzen duten bereizkeria, indarkeria eta estigmatizazio estrukturalari aurre egiteko eta horrekin amaitzeko, honako hipotesi hau planteatu dezakegu interes horri dagokionez: gerta daiteke Honduraseko gobernuak giza eskubideen eta askatasunen defendatzaile legitimazioa lortu nahi izatea nazioartean LGTB gaiaren bitartez, Honduraseko populazioari eta kritiko diren kolektiboari jazarpena eta indarkeria ekonomiko, sozial eta politikoa jasanarazten zaien bitartean.

---

<sup>1</sup> Txosten osoan LGTB akronimoa erabiliko dugu, hori baita Honduraseko LGTB erakundeei erabiltzen dutena.

<sup>2</sup> Ikusi "Honduras: Economía que crece y empobrece" artikulua, <http://www.telesur.tv.net/opinion/Honduras-Economia-que-crece-y-empobrece-20170615-0057.html>

Azken astean Tegucigalpan eta La Ceiba izan ginen zenbait LGTB erakunderekin, eta, haiekin izandako bileretan, ezagutu ahal izan genuen zertan diren Hondurasen LGTB pertsonen kontrako gorroto delituak, nola egiten dieten aurre pertsona horien giza eskubideen urraketei eta nola antolatzen diren. Era berean, esperientzia trukeak ere izan genituen, eta garatzen ditugun lan eta proiektuei zer ikuspegitik heltzen diegun identifikatu genuen.

Txosten honek ez du islatzen –ez du hori helburu– Hondurasen dagoen LGTBen aniztasuna. Herrialde horretako bi zonaldeetako errealitatera hurbiltzeko saio bat baino ez da. Zonalde biak hiri ingurukoak dira, eta, elkarren desberdinak izan arren, ez dute landa ingurunearen errealitatea azaltzen. Txostenaren eranskin modura, eta landa ingurunekeo informazio gabezia leuntzeko asmoz, Jennifer Ávila Reyesek (Presentes agentzia) Gaspar Sánchezi egindako elkarrizketa eskaintzen dugu (Gaspar Sánchez lenca herriko kidea da, eta herri indigenen ondarea bizirik gordetzen du ingurunearen, nortasun indigenaren eta sexu aniztasunaren aldeko borrokan).

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu txosten hau posible egin duten pertsonari, eskaini diguten adiskidantzagatik, bertan izan garen artean eman diguten laguntzagatik eta bilerak antolatzeko azpiegiturak kudeatzeagatik. Mila esker zuei, Dora, Eva, José, Francisco eta Angel, zuen denboragatik, zuen begikotasunagatik eta zuen jarrera ezin hobeagatik.

## TESTUINGURUA:

### BEREIZKERIA, INDARKERIA ETA INPUNITATEA

Joan den 2016an, nazioarteko arretaren jomuga izan zen Honduras, Berta Cáceresen<sup>3</sup>, Agua Zarca proiektu hidroelektrikoaren kontrako mugimenduaren partaide zen buruzagi indigenaren hilketaren zioz. Krimen hori izozmendiaren tontorra baino ez da, Hondurasen oso handia baita giza eskubideak defendatzen dituzten mugimendu, ekintzaile eta pertsonen kontrako indarkeria.

Mel Zelayaren kontrako estatu kolpea burutu zenetik, 2009an, munduko herrialderik arriskutsuena bilakatu da Honduras, giza eskubideak, oro har, benetan gauztu ahal izateko. Jarraian aipatuko ditugun datu eta egoera hauek argi adierazten dute zein kezkagarria den, Hondurasen, giza eskubideen egoera<sup>4</sup>: jendarte zibilaren eta espazio publikoen militarizazio gero eta handiagoa; politika neoliberalen aplikazioa, zerbitzu publikoak eta baliabide naturalak pribatizatzeko prozesuen bitartez kapital handien onuragarri gertatzen baitira eta heriotza ugari sorrarazten zerbitzu publiko eta baliabide natural horien defendatzaileen artean; justizia eta segurtasunerako erakundeen independentzia falta; giza eskubideen urraketen inpunitatea, ez baitira behar bezala ikertzen; giza eskubideen defentsan jarduten duten pertsona, herri mugimendu eta erakundeen estigmatizazio sistematikoa; herri buruzagien eta giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa eta auziperatzea; indarkeriaren eta krimen antolatuaren normalizazioa; langabezia tasa handiak, Latinoamerikako altuenetakoak; % 11ko analfabetismoa, eta populazioaren % 60,9 pobrezia edo muturreko pobrezia baldintzetan bizi izatea.

Estatu kolpeaz geroztik, LGTB pertsonen kontrako indarkeria eta krimenak areagotu egin ziren Hondurasen; 2008tik 2017ko maiatzera bitartean 262 pertsona hil dituzte beren sexu joeragatik eta genero nortasunagatik<sup>5</sup>. Pertsona horietatik 23 ziren lesbianak, 153 gayak eta 86 transexualak. Hilketak horien inguruko inpunitatea argi uzten dute honoko

---

<sup>3</sup> Berta Cáceresi buruzko dokumentala: "Berta Vive" <http://m.youtube.com/watch?v=p5IPQpjA1ic>

<sup>4</sup> Defendatzaileak sarean: <http://defensoresenlinea.com/> COFADEH (facebook): [https://www.facebook.com/profile.php?id=100004767908229&hc\\_ref=SEARCH&fref=nf](https://www.facebook.com/profile.php?id=100004767908229&hc_ref=SEARCH&fref=nf) Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH: <http://im-defensoras.org/?cat=20> Peace Brigades International (PBI), Honduras proiektua: web orri nagusia <http://www.pbi-honduras.org/??&L=0> Amnistia Internazionala: Hondurasi buruzko informazioa eskaintzen duen orri nagusia <https://www.amnesty.org/es/countries/americas/honduras/> Nazio Batuak: Hondurasi buruzko OACNUDH-aren orri nagusia: <http://www.ohchr.org/SP/Countries/LACRegion/Pages/HNIndex.aspx> Giza Eskubideetarako Ameriketako Batzordea: giza eskubideen egoera Hondurasen <http://www.oas.org/es/cidh/multimedia/2016/Honduras/Honduras.html>

<sup>5</sup> Iturria: CATTRACHAS sare lesbikoa [www.cattrachas.org](http://www.cattrachas.org)

datu hauek: 46 kasu baino ez dira epaitegietara heldu; horietatik bederatzitan absoluzio-epaia eman zuten, 15 kasutan zigor-epaia, eta gainerakoak ebazpenaren zain daude.

LGTB ekintzaile askoren aburuz, indarkeria horren arrazoiak estaturen erakundeetan euren eta zabaltzen dituzten sexu eta genero aniztasunaren kontrako gorroto mezuetan bilatu behar dira. Gorrotoaren sustatze horretan funtsezko gakoak dira, halaber, eliza katolikoa eta talde ebangelistak, etengabe bideratzen baitute LGTB pertsonen kontrako giroa. Erlijiozko fundamentalismo hori botere politiko eta ekonomikoaren parte izaki, bazterkeria eta estigmatizazio kultura sortzen dute; horren eraginez, LGTB pertsonak zaurgarriagoak dira eta etengabeko erasoen jomuga bihurtzen dira haien ingurune gertuenekoentzat, antolatutako *mara* horientzat eta talde polizial eta militarrentzat.

Hondurasek 1899an onartu zuen, legez, homosexualitatea. Onespena emateko adina berbera da heterosexualentzat edo LGTBentzat. Alabaina, konstituzioa aldatu zuten 2005ean, eta, harrezkero, sexu bereko bikoteek debekatua dute ezkontzea, baita elkartze zibilak osatzea eta adoptatzea ere. Ez dago legez sexua aldatzeko ezta agirietan sexua aldatzeko eskubiderik.

LGTB erakundeen bultzadaz, Honduraseko parlamentuak Zigor Kodearen aldaketa onartu zuen 2013an, sexu joera eta genero nortasunean oinarrituriko bereizkeriaren aurreko lege babesa bermatzeko. Hala, delituaren zirkunstantzia larrigarritzat jotzen da sexu joeragatiko edo genero nortasunagatiko gorrotoz edo mespretxuz jardutea. LGTB erakundeen iritziz, aldaketa horiek ez dira aplikatzen ari, eta beldur dira indargabetuko ote dituzten orain Hondurasen eztabaidatzen ari den Zigor Kode berrian.

Zigor Kodearen proiektu horren arabera tipifikatu egiten da “nortasun faltsua” delitua, eta gizon edo emakume transexuala bazara auzipetu ahal izango zaituztete zure nortasun agirietan agertzen den generokoa ez den izena erabiltzen baldin baduzu.

Gaur egun, LGTBen bereizketaren kontrako lege bat ari dira lantzen, eta hori lagungarria izan daiteke, LGTB kolektiboen iritziz, ekintza inklusiboak bultzatzeko alor guztietan. Legeak kontuan hartuko lituzke transexualitatea, gazteria, lan arloa, etab.

Hondurasek indarrean dituen Politika Publikoak eta Giza Eskubideetan Jarduteko Plan Nazionalak (Plan Nacional de Acción en Derechos Humanos - PNADH) sexu aniztasunari buruzko atal bat jasotzen dute beren oinarri estrategikoetan, baina pertsona LGTBen aldeko ekintza estrategikoak eskasak eta mugatuak izan dira, nahiz eta aipatutako Plan Nazional horrek herrialdeko legeria nazioarteko estandarrekin harmonizatzeko ekintzak aurreikusi eta bereizkeriaren –estatuak zein jendarteak eragindakoa– kontrako neurriak jasotzen dituen.

Hondurasen badira talde ahulenei zuzenduriko politika publikoak, baina, oraindik ere, LGTB ezaugarria salbuetsi egiten da gobernuaren eta udalerrien plangintza, proiektu, programa eta aurrekontuetan. Horren eraginez, LGBT populazioaren parte handi bat hezkuntza edo lan programetatik kanpo gelditzen da, eta, hala, osasunerako eta bizitzarako ere arriskutsuak diren zereginetan jardun behar izaten dute, eta migratu beharra ez izaten dute, ez bakarrik arrazoi ekonomikoengatik, ezpada segurtasunagatik eta beren sexu joera eta genero nortasunagatiko bereizkeriagatik. Gaur egun, LGTB populazioaren parte garrantzitsu batek herrialdea uzten du, baldintza irregularretan, arrazoi horiek direla medio.



## 1. ZENBAIT GALDERA IRADOKITZAILE


Elkarriketak egiterakoan, sexu eta genero aniztasunaren egoeraz eztabaidatzeko eta sakontzeko asmoz, jarraian azaltzen den galderetarako gidoia erabili dugu; esan beharra dugu, hala ere, eztabaida bideratzeko baliatu dugula, eta ez bere horretan nahitaez bete beharreko galdetegi modura.

Horrek bidea eman digu hobeto ezagutzeko solaskide izan ditugun gizarte erakundeen eta erakunde publikoen lana, bai eta antzematen dituzten erronkak zein diren jakiteko.

- Zer lan mota egiten du erakundeak egunerokoan?
- Zer estrategia zehaztu dituzte?
- Nola antolatzen dira erakundeak, euren artean, *Sexu joera eta genero nortasunagatiko gorroto delituei* aurre egiteko? Edo atomizazioa dago?
- Nola begiratzen zaie giza eskubideen defendatzaile LGTBei?
- Erakundearen ustez, zergatik dago hain presente LGTBen gaia erakunde publikoetan?
- Zer erronka identifikatu ditu erakundeak etorkizunerako?

## 2. GAUR EGUNGO EGOERARA HURBILTZEKO SAIO BAT

Kapitulu hau elkar lotutako sei ataletan antolaturik dago:



### 2.1. LGTB KOLEKTIBOA

Dirudienez, LGTB kolektiboaren antolaketa-egitura ona da, ugaria eta askotarikoa; kasu batzuetan, berariazko erakundeak dituzte transexualek, gayek edo lesbianek, baina gehienak mistoak dira. Zenbait erakundek ondo baloratzen dute alderdi hori, esaterako ACNURek; horren arabera, LGTB kolektiboak Honduraseko antolaketa-egitura indartsuena du, gainerako gizarte kolektiboekin alderaturik.

Alabaina, LGTB mugimendua zatikaturik eta polarizaturik dagoela ere aipatu izan da. Alde batetik, ez omen dute loturarik beste gizarte-inguruetako erakundeekin, eta, bestetik, susmoak eta banaketak ere badaude LGTB inguruko erakundeen artean.

## 2.2. LGTB KOLEKTIBOAREN KONTRAKO INDARKERIA

Hondurasen bizi den indarkeria testuinguru orokorraren barruan, LGTB kolektiboa ahulenetakotzat jotzen da: hilketa kopuru oso handia dago kolektiboan, eta etengabe jasaten dituzte mehatxuak, jipoiak, estortsioak eta behartutako lekualdatzeak.

Indarkeria horri buruzko datuak nork aipatzen dituen, desberdinak dira zifrak: LGTB kolektiboek estatuak baino kopuru handiagoak ematen dituzte. Nolanahi ere, nabarmendu behar da kolektibo horien barruan ere ez dagoela erabateko adostasunik.

Aipatzen diren datuen arabera, gizon homosexualena da talderik bortxatuena, eta jarraian, emakume transexualak eta lesbianak. Azaldu behar da, Hondurasen, emakume transexualak ez dituztela kontuan hartzen feminizidioari buruzko datuetan, eta LGTB taldeek salatu egin dute jokabide hori. Lesbianen hilketak, ordea, zenbaketa horren barruan sartzen dira. Horri dagokionez, kolektiboek azaltzen dute hilketa horiek isilpean geratu ohi direla eta ezkutatu egiten dela euren berezitasuna eta sexu aniztasunaren kontrako delituekin duten lotura.

Indarkeria horiek estatuak gauzatzen ditu, poliziaren eta segurtasunarekin lotutako erakundeen bitartez (bereziki kezagarria da kartzeletako egoera, non ohikoak baitira sexu abusuak eta jazarpenak). Estatuaz gain, jendarteak eta familiek ere erabiltzen dute indarkeria, hala nola *mara* deitutako taldeek, droga trafiko eta salmentarekin loturiko erakundeek eta elizek, etengabe zabaltzen baitituzte sexu eta genero aniztasunaren kontrako gorroto mezuak.

*Marek* baliatzen duten indarkeriari dagokionez, azpimarratu behar dugu sarritan aipatu dutela elkarrizketatu ditugun pertsonen. Adierazi digutenez, LGTBen zaurgarritasunaz baliatzen dira, eta, euren interesetara makurtzen ez badira, estortsio egiten diete edo hil egiten dituzte.

Nolanahi ere, LGTB kolektiboek bizi duten mehatxu egoera askotarikoa da. Erakunde batzuek mehatxurik gabe lan egiten dute, eta, beste batzuek, ordea, Bakerako Nazioarteko Brigaden ([PBI](#)) laguntza baliatzen dute. Zenbait kolektibok egoitza etengabe aldatu beharra izaten dute, sarritan jasaten baitituzte mehatxuak eta estortsioak, baita egoitzak txikitzeko “bisitak”, eta euren kideak jipoitu edo hil egiten dituzte.

Horrela bada, Estatuari justizia eta inpunitatearekin amaitzea eskatzen diote kolektiboek, zeren, haien iritziz, oso kasu gutxi heltzen baitira epaitegietara, eta oso pertsona gutxi zigortzen dituzte eraso horien ondorioz. Kolektiboko erakundeen ustetan, Estatuari ez zaio interesatzen eraso horiek ikertzea, eta Estatuarekin fio ez

direnez –eraso horien konplize delako edo berak gauzatzen dituelako erasoak–, ez ohi dituzte baliatzen egon dauden babes mekanismoak.

Bizi duten indarkeria eta mehatxu giroak erabat baldintzatzen du kolektibo horien lana, baina, beldurrez jardun arren, ausardia handia agertzen dute.

### 2.3. ZER DEN PRESAZKOA ETA ZER ESTRATEGIKOA

Lehen aipatu dugun moduan, hain da larria indarkeria egoera, non erakundeek eguneroko kasu larrienez jardun behar duten. Errealitatea hain bortitza izanik, zaila da lehentasunak ezartzea eta beherelakoa denaz harago doazen ikuspegi estrategikoak finkatzea.

Honduraseko LGTB kolektiboek beste alor batzuek ere lantzen dituzte: i) GIBa, horretarako funtsak jasotzen dituzte Nazioarteko lankidetzaren bitartez; ii) politikan eragitea, norberaren joera ideologikoa gorabehera, eta oso ondo baloratzen dute hautagai LGTBak egotea eta indar politikoek euren programetan bereizkeriaren kontrako proposamenak jasotzea, dimentsio sozial guztietan; iii) LGTB kolektiborako prestakuntza saioak; iv) autoestimu tailerrak, elkarrenganako laguntza taldeak eta jaiak; v) manifestazioak; vi) jendartea sentsibilizatzeko kanpainak, etab.

### 2.4. SUBJEKTU POLITIKOA

Ematen duenez, gaur egun, baliabide kolektiboak edo erakundeak ez dauden tokietan bizi diren LGTBak bakar-bakarrik daude jazarpen edo indarkeria pairatzen badute. Gainera, kasu askotan ez dago jakiterik zer gertatu zaien beste toki batera edo herrialdetik kanpora joan behar izan duten LGTBei; harremana galtzen dute jatorrizko herriko erakundearekin, eta ez dira biltzen harrera herriko LGTB erakundeetara.

### 2.5. SAREAK

Elkarrizketatu ditugun LGTB kolektibo gehienek Honduraseko Sexu Aniztasunaren Komiteko kide dira; horren bitartez koordinatzen dira estatuko erakundeekin, zenbait lan-mahai tarteko: udal kontseiluak, babeserako mekanismoa edo poliziaren talde batzuk. Horrez gain, estatuarekin harreman berariazkoa baduten erakundeak ere badaude.

## 2.6. FINANTZIAZIOA ETA LANKIDETZARAKO AGENTZIAK

LGTB erakundeek baliabide urriak dituzte beren lana garatzeko: kontratupeko pertsona gutxi eta militantzia ugari. Nazioarteko Lankidetzarako funtsen menpeko dira, neurri handi batean, eta horrek baldintzatu egiten ditu lan egiteko moduak, proiektuetan jorratu beharreko gaiak, baita lagundu beharreko kolektibo eta adin taldeak ere.

Erakunde zenbaitek USAIDen (AEBen Nazioarteko Garapenerako Agentzia) edo Europar Batasunaren laguntza jasotzen dute, eta, gure iritziz, finantza-laguntzak emateko ezartzen dituzten baldintzen artean gizarte mugimenduaren desegituraketa eta ahultzea dago, eta horrek desaktibatu egiten ditu prozesu eraldatzaileak.

### 3. ANTZEMANDAKO ZENBAIT ERRONKA

Kapitulu hau antolatzeko, aurreko kapituluko sei atalak erabili ditugu. Jarraian eskaintzen ditugun ekarpenek gure ikuspuntua agertzen dute, elkarriketatu ditugun pertsonak agertu dizkiguten begirada askotarikoak oinarri hartuta. Ez dugu inolaz ere nahi “aditu batzuen” ondorioztat har daitezen, harrokeria bailitzateke gure aldetik; izan ere, sexu eta genero aniztasunaren alorrean, Hondurasen, kooperazio eta lankidetzarako ibilbide berriak asmatzen laguntzeko balio dezaketen gaiak eta gogoetak dira ondorengo hauek.

#### 3.1. LGTB KOLEKTIBOA

- ➡ Gure ikuspuntutik, legezko berdintasunaren eta ezagutzaren aldeko borrokaren eraginez, Estatuak baliatzen dituen erakundeak bilaka daitezke.
- ➡ Nabarmentzekoa da, LGTB kolektiboaren barruan, lesbianen egoera. Antzeman daiteke kolektibo hori ikusezinagoa dela, gutxiago ezagutzen dela haien egoera, antolaketa maila eskasagoa dutela, eta, seguruen, zaurgarriagoak direla indarkeriaren aurrean.

#### 3.2. LGTB KOLEKTIBOAREN KONTRAKO INDARKERIA

- ➡ Gure ikuspuntutik, premiazkoa da indarkeria honen eta Estatuaren gainbeheraren artean egon daitezkeen loturetan sakontzea. Uste dugu beste kolektibo zaurgarri batzuk ere badaudela, baina horiek ez dituztela berdin jasaten *maren* presioa.
- ➡ Kolektiboek Estatuari eskatzen dioten beste gauza bat da haiekin harremanetan jartzea LGTB izateagatiko hilketa eta erasoen zerrenda ezartzerakoan, indarkeria hori pairatzen duten pertsonak ezagutzen dituztenez bai baitakite LGTB kolektibokoak direla. Estatuak, sarritan, ukatu egiten du hori, indarkeria kasuak ikertzen dituztenean.
- ➡ Eskatzen dute, halaber, LGTB kolektiboak *maren* aldetik jasaten duen jazarpena indarkeria politikotzat jotzea, eta ez indarkeria arruntzat edo delinkuentziatzat.
- ➡ Deigarria gertatzen da kolektibo bakoitzak bere aldetik lan egitea, eta erantzun soziala eta politikoa modu kolektiboan emateko bitarteko antolaturik ez edukitzea.

### 3.3. ZER DEN PRESAZKOA ETA ZER ESTRATEGIKOA

- Koiunturakoa, zehatza eta berariazkoa den hori gainditzeko duten estrategiak zehazten eta sortzen lagundu beharra dago, larrialdiei erantzutearekin batera lan estrategikoa eginez eta lanerako ibilbide kolektiboak finkatuz.
- Beharrezkoa da, halaber, gogoeta eta eztabaida egitea lortu nahi den herrialde ereduaz, gaur egun nagusi den eredia gainditzeko. Intersektionalitatea lagungarria gerta daiteke azterketa hori egiterakoan, LGTB kolektiboaren saioak eta borrokak beste kolektiboenekin batera uztartuz. Interesgarria izan daiteke heteroaraua gehitzea bazterkiaren hirukoari (neoliberal, etnozentrikoa eta heteroarautzailea), lotura ezarriz herriaren lurraldea lapurtzearen eta gorputzen eta desiren lurraldea lapurtzearen artean. Nahitaezko lehen urratsetako bat da kolektibo askotariko horien artean konfiantza sortzea “zubi” pertsonen bitartez. Eta beste urrats bat izan daiteke LGTB kolektiboa politikoki prestatzeko ibilbideak diseinatzea. LGTB kolektiboaren premia larriei erantzutearekin batera, salaketa egin behar da, Ipar globaleko erakundeekin dituzten harremanen bidez eta inguru geografiko horietan gara dezaketen Gizarte Eraldaketarako Heziketaren bitartez.
- Interesgarria izan daiteke kolektiboaren memoria historikoa lantzea, horretatik etorkizunerako ikasbideak ateratzeko. Esperientziak sistematizatzea izan daiteke hori lortzeko bidea.
- Antzeman den beste erronketako bat gazteekin lan egin beharra izan da, sexu eta genero aniztasuna nabaritzen hasten direnean haiei lagun eginez. Antza denez, nazioarteko lankidetzak ez du lan hori bultzatzen adin txikikoekin, eta “hildakoak zenbatzearekin” lotura handiagoa duten proiektuak laguntzen jartzen dute arreta.
- Beste gai garrantzitsu bat laguntza psikosoziala da, kontuan hartu behar baita nagusi den mehatxu giroa. Horretan presta daitezke elkarteetako aholkulariak, egon dauden eta sor litezkeen autolaguntzako taldeekin lan egin dezaten.
- Erakundeetan eta politikan eragiteko, azpimarratu egiten da garrantzitsua dela Hondurasek onartu dituen nazioarteko agiri, akordio eta itunetan sakontzea; esaterako, [Brasilgo Ekintza Plana](#). Nabarmendu egiten da, halaber, Estatuko erakundeekin lan egiterakoan (poliziaren prestakuntza, kasu) erakundeek beraiek konpromisoa hartu behar dutela; adibidez, erantzukizuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna duten kargudunak prestakuntza horietan sartuz. Horrela, bermatu egin daiteke eragina handiagoa izango dela eta ez dela aurpegi garbiketa kontu huts bat izango.

### 3.4. SUBJEKTU POLITIKOA

- ➡ Antzeman den beste erronketako bat izan da subjektu politikoa indartu beharra, hala nola talde antolatuetako kulturarekin bat egitearen eta horren parte izatearen sentimendua. Oso garrantzitsua da jakitea giza eskubideetako zer defendatzailek lan egiten duten LGTB esparruan, eta figura hori indartzea (nor den, zer den, zer egin dezakeen), egon dagoen gidaritza edo lidergoa ahuldu egin baita (hil egin dituztelako, desagertu direlako edo herrialdea utzi behar izan dutelako). Premiazkoa da figura hori indartzeko estrategiak identifikatzea.
- ➡ Azkenik, garrantzitsutzat jotzen da, halaber, Ipar globaleko erakundeetan politikoki eragitea, sexu eta genero aniztasunaren gaia presenteago egon dadin lantzen diren nazioarteko txostenetan.

### 3.5. SAREAK

- ➡ Egiaztatu dugu Hondurasen ez dagoela datu adosturik LGTBeen giza eskubideei dagokienez. Interesgarria litzateke antzematea zer iturri seguru eta fidagarri dagoen, horiek baliatu ahal izateko LGTBei eta haiek pairatzen duten indarkeriari eta giza eskubideen urraketa buruzko ikerketak eta txostenak lantzerakoan.

### 3.6. FINANTZIAZIOA ETA LANKIDETZARAKO AGENTZIAK

- ➡ Interesgarria litzateke identifikatzea zein diren horrelako aliantzarik nahi ez duten eta ekimen eraldatzaileagoen laguntza bilatzen duten LGTB erakundeak.
- ➡ Estatua mehatxu bat izan arren, instituzioen barruan badira pertsona ireki eta ulerberak. Garrantzitsua da nor diren antzematea eta haiekin loturak, konplizitateak eta aliantzak sortzea.



## ERAKUNDEAK

Atal honetan, solaskide izan ditugun erakundeen deskribapen labur bat egingo dugu.

### COMITÉ DE LA DIVERSIDAD

**HARREMANETARAKO:** <https://diversidadsexualhonduras.wordpress.com/> Sexu Aniztasunerako erakundeek duten konbergentzia esparrua eta erabaki politikoak hartzeko gunea da Comité de Diversidad Sexual de Honduras (CDSH) erakundea, LGTB komunitatearen egoera ikertu eta horretaz gogoetatzeko gunea.

Horren partaide dira: Kukulcán elkarte, Colectivo Violeta elkarte, Honduraseko LGTB Arcoiris elkarte, Somos CDC gunea, Ixchel talde lesbiko bisexuala, Litos talde lesbiko bisexuala, Cozumel Trans elkarte eta Asociación para una Vida Mejor de Personas Infectadas y Afectadas por VIH en Honduras (APUVIMEH) elkarte.

Comité de la Diversidad Sexual de Honduras instantzia politiko bat da, sexu aniztasunaren liderra herrialde horretan, eta erabakiak hartu eta goi mailako ekintzak abian jartzen ditu estatuaren, nazioarteko erakundeen, lankidetzarako agentzien eta sexu aniztasunaren problematikarekin lotura duten beste instantzia batzuen aurrean.

### APUVIMEH

**HARREMANETARAKO:** <https://www.facebook.com/APUVIMEH/> Asociación para una Vida Mejor de Personas Infectadas y Afectadas por VIH en Honduras (Hondurasen GIBak kutsaturiko edo horrek erasandako pertsonen bizimodu hobearen aldeko elkarte). LGTBI komunitatearekin eta GIB/IHESak erasandakoekin lan egiten du.

APUVIMEH-k LGTBI komunitatekoak izan eta GIB/IHESa dutenentzako aterpetxe bat eskaintzen du, "Renacer" etxea, eta zenbait proiektu garatzen ditu; horien artean, GIB/IHES eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko programa bat eta gazteentzako proiektu bat.

## LGTB ARCOÍRIS ELKARTEA

### HARREMANETARAKO:

Osman Cárcamo  
[osmanarcoirishn@gmail.com](mailto:osmanarcoirishn@gmail.com)  
[arcoiris@riseup.net](mailto:arcoiris@riseup.net)

Donny Reyes  
[arcoirisghn@yahoo.com](mailto:arcoirisghn@yahoo.com)  
[donnyreyes2@gmail.com](mailto:donnyreyes2@gmail.com)

<https://es-es.facebook.com/lgt.p.arcoiris/>

Honduraseko ARCOÍRIS 2003ko abuztuaren 1ean sortu zen, eta bere buruari ezarri zion helburua izan zen Comayagüela eta Tegucigalpa herrietako LGTB komunitatea ahalduntzea eta horiei informazioa eskaintzea; honoko gai hauek lantzen ditu: osasun integralaren sustapena; giza eskubideen defentsa eta sustapena, Hondurasen, sexu aniztasunaren esparruan; parte hartze politikoa; ikerketa, eta ikerketaren zabalkundea. Hurrengo populazio taldeekin egiten dute lan (eta horiei bideraturik daude elkartearen programa eta proiektuak): emakume lesbianak eta bisexualak, gizon homosexualak eta bisexualak, gizon eta emakume transexualak eta heterosexualak; azken horien kasua sentsibilizatzea da xedea, sexu jokabidearengatiko estigma eta bereizkeria murrizteko asmoz.

Sentsibilizazio eta trebatze lana garatzen dute osasun zentroetako langileekin, eskoletakoekin, guraso elkarteekin, etab. LGTB komunitateak Hondurasen aurre egin beharreko zenbait arazori buruzko ikerketak egiten dituzte; hala nola, gorrotoagatiko krimenak, LGTB komunitateren ibilbide historikoak, sexu aniztasunaren inguruetako pertsonen migrazioa eta erbestean bizi duten egoera, baita LGTBek GIBari dagokionez dituzten praktikak eta joerak ere.

Ordezko kide da Giza Eskubideen Babeserako Kontseilu Nazionallean; kontseilu hori Giza eskubideen defendatzaileak, gizarte komunikatzaileak, kazetariak eta justizia emaileak babesteko Lege Nazionalaren baitan sortu zen.

Gaur egun Bakerako Nazioarteko Brigaden (PBI) laguntza dute, mehatxaturik baitaude.

## LITOS TALDE LESBIKO BISEXUALA

### HARREMANETARAKO:

Essdra Sosa  
[arcoiris\\_litoshn@hotmail.com](mailto:arcoiris_litoshn@hotmail.com)

LITOS Arco Iris-eko kide da. Emakume lesbianak eta bisexualak ditu lanaren jomuga. Lesbianak baztertuta daude bai beren familietan baita lantokietan ere. Hogeita hamasei lesbianek alde egin dute beste herrialde batzuetara, eta, hala, lesbiana izateagatiko indarkeriari immigrazioari dagokiona gehitzen zaio. Jendeak esaten die asiloa eskatzeko. Alde egiteko aukerak badituzte, baina ez dute nahi, Hondurasen jarraitu nahi dutelako, baldintza horietan bada ere borrokan jarraitzeko. Jakin badakite erlijio-fundamentalismoa dagoela eta LGTB denaren, eta, bereziki lesbianen kontrako mezua jorratzen dutela etengabe.

## CATTRACHAS LGTBIQ\* BEHATOKIA

**HARREMANETARAKO:** CATTRACHAS irabaz asmorik gabeko erakunde autonomoa eta independentea da; 2000. urtean sortu zen, “Red de Respuesta Lésbica Cattrachas” izenarekin, komunikazio estrategiak garatzeko xedez, horien bitartez erantzuteko, gizarte zibiletik, Honduraseko LGTB komunitateko (lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak) pertsonen giza eskubideen urraketei, eta horiei buruzko komunikazioa bideratzeko.

[Cattrachas.Tegucigalpa@facebook.com](https://www.facebook.com/Cattrachas.Tegucigalpa)

<http://www.cattrachas.org>

[www.youtube.com/CATTRACHAS](http://www.youtube.com/CATTRACHAS)

2003. urtetik aurrera, maila nazionalean zein nazioartekoan jarduten dute komunikazio zereginetan, giza eskubideen urraketa horiei aurre egiteko. Ebidentzian oinarritutako prozesuei esker, aliantzak eta lankidetzak sortu ahal izan dituzte herrialdeko zein nazioarteko ekintzaile, erakunde eta sareekin. Erdialdeko Amerikan eta Dominikar Errepublikan, harreman estua dute lesbiana feministekin, giza eskubideen defendatzaileekin eta hedabide alternatiboekin.

Cattrachas ez da Gobernu Kanpoko Erakunde bat (GKE); hori dela eta, ez du soldatapeko batere langilerik, eta bere prozesuetan parte hartzen duten guztiak boluntarioak dira. Bost pertsona arduratzen dira hurrengo lan alor hauek koordinatzeaz: hedabideen jarraipena eta artxiboa, eragin politikoa, LGBTTI komunitateko giza eskubideen defentsa, eta kudeaketa. Erakunde autonomoa izate horrek ematen dio, bestelako instituzioekin dituen harremanekin batera, politikoki eragiteko prozesuak sustatzeko aukera, Honduraseko LGTB komunitatearen eskubideen defentsari begira, baita horien ikusgaitasuna sustatzeari eta politika feministak ezartzeari begira. Gaur egun erakunde lesbiko feminista dira, eta Honduraseko LGBT komunitatearen ikerketan, komunikazioan, eragin politikoan eta giza eskubideen defentsan jarduten dute.

## IXCHEL TALDE LESBIKO/BISEXUAL FEMINISTA

**HARREMANETARAKO:** IXCHEL taldea 2008. urtean sortu zen KUKULKAN elkartearen barruan. Elkarteko militanteek eskaturiko gunea da, eta haien helburua da partaideak lider jarduteko ahalduntzea, horrela aldaketak sorrarazteko esparru soziopolitiko nazionalean zein nazionartekoetan. Nortasun lesbiko bat garatzeko eraikitze prozesuan ari dira. Emakume lesbianek eta bisexualek giza eskubideen alorrean, osasun integralaren alorrean eta herritar

Lucía Barrientos

[grupoixchelhonduras@gmail.com](mailto:grupoixchelhonduras@gmail.com)

**Facebook:** Ixchel Les

modura parte hartzerakoan dituzten arazoak eta beharrak konpontzen laguntzeko jarduerak garatzen dituzte.

Lesbianen kontrako indarkeria salatzen dute: 2017an lau emakume hil dituzte; kasuetako batean, emakume bat bere neskalagunarekin azaldu zen, eta haren gizonezko bikotekide ohiak hil egin zuen. Lesbiana asko hiltzen dituzte horrela. Fisikoa ez ezik emozionala ere bada lesbianen kontrako indarkeria, egunero pairatzen baitute bereizkeria beren familietan, lantokietan, etab. Argi uzten du horrek zein zaila den Hondurasen lesbiana izatea. Bortxaketa salatu duten lesbiana batzuk, familiaren onespenearekin bortxatu dituzte. Era horretako bortxaketak ez dira gehienetan salatzen, beldurraren beldurrez, zeren *Nori salatu? Erasotzen nautenei? Zertarako?* Uste dute askotan badudela arrazoiak salaketa ez egiteko.

## ASOCIACIÓN COLECTIVO VIOLETA

**HARREMANETARAKO:** Hondurasen lehen GIB diagnostikoa egin zenean, 1985ean, ekin zion Ianari, Asociación Hondureña de Homosexuales Contra el Sida (AHHCOS) izenarekin. Gaur egun GIBaren prebentzioan lan egiten dute, baita estigma eta bereizkeria murrizteko zereginetan eta giza eskubideen defentsan, batez ere GIBak kutsatutako eta erasandako homosexualek osasun integralerako duten eskubidearen defentsan. Izena aldatzea erabaki zuten 1995ean, eta Asociación Colectivo Violeta da harrez gero; oso paper garrantzitsua jokatu du Honduraseko LGTB populazioaren giza eskubideen defentsan.

Gaur egun gai hauek jorratzen dituzte: giza eskubideak, GIB-IHES, politikan eragiteko bideak, herritarren parte hartzea, sexu joeragatiko eta genero nortasunagatiko bereizkeriaren murrizketa.

Asociación Colectivo Violeta-k kexak jartzeko unitate bat sortu du, jendeak ez baitu jotzen ministerio publikora, salaketak, oro har, estatuaren beraren kontrakoak edo bere funtzionarioen kontrakoak izaki.

Facebook:  
colectivo.violeta.3  
[oficialddhhcv@gmail.com](mailto:oficialddhhcv@gmail.com)

## COZUMEL TRANS ELKARTEA

### **HARREMANETARAKO:**

Rihanna Ferrera  
Sanchez

[acozumeltrans@gmail.com](mailto:acozumeltrans@gmail.com)

[rihannaofarrell@hotmail.com](mailto:rihannaofarrell@hotmail.com)

Trabesti, transgenero eta transexualen elkarte da, eta populazio horren giza eskubideen defentsan eta sustapenean egiten du lan, hala nola GIBaren sexu bidezko transmisio gaixotasunen prebentzioan. Politikan eragiteko ekintzak garatzen dituzte, hala nola jendarte, oro har, trebatzeko saioak, baita Honduraseko funtzionarioak eta erakunde publiko zein pribatuetan erabakiak hartzen dituztenak sentsibilizatzeko ekintzak ere.

Haien helburuak dira elkartearen interesak eta ekintzak ordezkatzeko dituen gune bat sortzea solaskide nagusiekin jarduteko –governuko erakundeekin, jendarte zibilarekin, nazioarteko lankidetzarako elkarrekin eta komunikabideekin–, eta Honduraseko trabesti, transgenero eta transexualei zuzenduriko ekintza- eta komunikazio-estrategiak diseinatzea, betearaztea, horien jarraipena egitea eta ebaluatzea; beti ere giza sexualitate integrala bere osoan garatzea posible egingo duten joera aldaketak eragiteko asmoz.

Trabesti, transexual eta transgeneroen komunitate ahaldundua lortu nahi dute jendarte berdinzale, demokratiko, bereizkeria eta estigmatik gabeko batean, eta sexu joeragatiko eta genero nortasunagatiko krimenak desager daitezen lagundu, giza eskubideen defentsa eta genero nortasunaren onespina sustatzearekin batera.

## SOMOS CENTRO PARA EL DESARROLLO Y LA COOPERACIÓN LGTBI

### **HARREMANETARAKO:**

[programas@somosc dc hn](mailto:programas@somosc dc hn)

Garapenerako gobernu kanpoko erakundea da. Lantzen dituzten programek eta proiektuek Honduraseko LGTBI populazioaren bizi baldintzak hobetzea dute helburu, eta haien garapen soziala, politikoa eta ekonomikoa dute sustatzen.

LGTBI populazioaren ugalketa-osasuna eta osasun sexuala sustatzeko, LGTBI kolektiboaren giza eskubideak bultzatu eta defendatzeko, pertsona horien parte hartze politikoa areagotzeko eta kolektibo horren barruan kooperatibismoa eta ekintzailatza indartzeko programak garatzen dituzte.

## HUMAC (HUMANOS EN ACCIÓN)

**HARREMANETARAKO:** Talde ahulenak lagundu eta haientzako irtenbideak bilatu nahi zituzten zenbait pertsonak sortu zuten HUMAC 2014ko apirilean, hurrengo esparru hauetan jarduteko: osasun integrala, indarkeria eta giza eskubideak. La Ceiba herrian bi LGBTB erakunde egon ziren, OPROUCE eta AMA, biak ere jardunik gabekoak gaur egun. Bilera bat egin zuten, eta konturatu ziren LGBTB funtsak Tegucigalpan kontrolatzen zituztela eta ez zirela La Ceibara heltzen; hori kontuan hartuta eta antolamendu falta zegoenez, HUMAC sortzea erabaki zuten.

Isaac Sarmientos

Manfredo Cruz

[https://www.facebook.com/pg/humachn/about/?ref=page\\_internal](https://www.facebook.com/pg/humachn/about/?ref=page_internal)

Irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko erakundea da, eta gizarte arrisku handiena duten taldeei laguntzen diete: LGBTB populazioa, sexuaren langileak, etniak, askatasunik gabeko pertsonak eta gazteak. Heziketa, arreta eta laguntza eskaintzen diete, gaitasun handiko talde baten laguntzarekin eta osasun integrala, indarkeria, genero eta giza eskubideak gaietan aditutako diziplinarteko talde baten aholkuarekin. Eskubideak zaindu eta betetzen dituen jendarte batean sinesten dute, eta horren alde jarduten dute.

Haien esanetan, oinarriko erakunde bat dira, non denak diren LGBTB. Zenbait proiektutan hartzen dute parte, eta Tegucigalpako beste erakunde batzuekin –Somos CDC, Arcoiris, etab. –lotzen dituzte aliantzak, proiektuak lankidetzan garatzeko.

## OPROUCE (ORGANIZACIÓN PRO UNIÓN CEIBEÑA)

**HARREMANETARAKO:** 1998an sortu zen OPROUCE, emakume eta gizonezkoek sortuta, talderik ahulenak (LGBTB populazioa) laguntzeko eta horientzako irtenbideak bilatzeko asmoz.

[wilmerina@yahoo.com](mailto:wilmerina@yahoo.com)

Arrisku handiena duten populazioen (LGBTB kolektiboa) garapen integrala sustatzea dute xede, eta jorratzen dituzten proiektuen bitartez kolektibo horren bizi kalitatea hobetu nahi dute, osasun integrala, indarkeria, generoa eta giza eskubideak gaietan trebatuz.

Ahaldundutako erakundea da osasun integrala, indarkeria, generoa eta giza eskubidea gaietan. Aitzindariak dira funtzionamenduan, eta begirunez, zintzo, erantzukizunez, enpatiaz, elkartasunez eta garden jokatu izanak toki garrantzitsua eman die Hondurasen, eta nazioarteko onspena ere ekarri die.

## CDM VISITACIÓN PADILLA

**HARREMANETARAKO:** Visitación Padilla mugimendua 1984an sortu zen. Emakumeen elkarte bat da, gobernu kanpoko erakundea, eta auzoetan baditu beste oinarriko erakunde batzuk.

Cristina Flores

[visitacionpadilla@ca.blecdor.hn](mailto:visitacionpadilla@ca.blecdor.hn)

[visitacionpadilla@ca.blecdor.hn](mailto:visitacionpadilla@ca.blecdor.hn)

Emakumeen garapen osoa oztopatzen duen sistema patriarkalaren egiturak eraldatzen laguntzea du xede nagusia.

Visitación Padilla emakumeen mugimenduaren antolaketaren baitan “emakumeen kolektiboak” dira oinarrizko egitura, eta halakoak daude mugimendua presente dagoen herri guztietan. Adituak dira indarkeria pairatu duten emakumeentzako arretan eta emakumeen herri partaidetza sustatzeko alorrean. Honoko eskualde hauetan lan egiten dute: La Ceiba eta Tocoa (Atlantikoko kostaldea); Marcala, Comayagua eta Tegucigalpa (erdialdea); Progreso eta Villanueva (Cortés departamentua, iparraldea).

Eurek adierazten dutenez, ez dira mugimendu feminista antolatua bat, eta aniztasunetik eraiki nahi dute. Aniztasun horri zabalik daude, nahiz eta gauza bera ez izan lesbiana izatea, gay izatea edo trans izatea. Ez dira askorik antolatu sexu eta genero aniztasunaren aldeko mugimenduarekin, ez dira haiekin jesarri gogoeta egin eta elkarrekin eraikitzeko. Ez da fede txarrez gertatu den zerbait, ezpada herrialdeak bizi duen egoeragatik; hala ere, antolaketaren lana jorratzen ari da CESPA.

## UDIMUF (UNIDAD DE DESARROLLO INTEGRAL DE LA MUJER Y LA FAMILIA)

**HARREMANETARAKO:** Emakumearen eta familiaren garapen integralerako Batasunak (UDIMUF) generoan oinarritutako indarkeria prebenitzeko prozesuak lantzen jardun du Hondurasen, Atlántida departamenduko La Ceiba herrian, azken sei urteotan.

MARÍA ANTONIA

<http://www.udimuf.org/>

Gobernu kanpoko erakunde bat da, emakumeek osatutakoa, irabaz asmorik gabekoa, filiazio politiko edo erlijiosorik gabekoa eta alor juridikoan diharduen pertsonala badu.

UDIMUFek emakumeekin eta emakumeentzat lan egiten du, baita haien familiekin eta familientzat; bakea, berdintasuna eta justizia soziala oinarri dituen jendartearen eraikitzen laguntzen du, parekotasunik gabeko genero harremanak eraldatzen eta emakumeenganako indarkeria gutxitu dadin laguntzen.

“Somos muchas” izeneko plataformako kide da UDIMUF; emakumeak justiziaz baliatu ahal izateko lan egiten du, eta eskubide sexualez ikertzen du. Emakume gazteekin ere jarduten du, eta boluntario modura hartzen ditu. Aldi berean, LGTBI komunitateari ere arreta ematen dio, batez ere trans pertsonen (adierazi zuten ez dute gay eta lesbianekin lan egiten). Hala jarduten dute zeren, bereizkeria denek pairatu arren, transek askoz gogorrago jasan behar baitute, eta haien artean hilketa ugari egoten dira.

## CONSEJO NORUEGO PARA REFUGIADOS (CNR)

**HARREMANETARAKO:** Errefuxiatuentzako Kontseilu Norvegiarra (CNR) 1946an sortu zen; gobernu kanpoko erakunde nazioartekoa da, independentea, humanitarioa eta irabaz asmorik gabekoa.

Catherina  
Catamusay

[ludim.ayala@nrc.no](mailto:ludim.ayala@nrc.no)

<http://www.nrc.org.co/honduras/>

CNRk Latinoamerikan eta Kariben garatzen dituen ekintzek errefuxiatuen eta lekuz aldatu behar izan duten pertsonen behar eta eskubideei erantzuten diete, kontuan hartu gabe haien adina, generoa, sexu joera edo genero nortasuna, gizarte maila, etnia, erlijioa edo nazionalitatea; iraungo duten irtenbideak bilatzen dituzte.

Hiru zutabe nagusi ditu:

- Programak
- Gaitasun norvegiarra (larrialdiei erantzuten dieten adituak)
- Eragitea

Haien programetan 6 osagai egon ohi dira: Aterpea, Ura eta saneamendua, ITLA deitutakoa (Informazioa, Orientazioa eta Lege aholkularitza), Kanpamenduak, Elikagai- segurtasuna eta Genero ikuspegia. Adierazi zuten ez dute LGTBI kasu berezirik izan, edo, agian, izan dute holakorik baina ez dute esaten, nagusi den homofobiagatik. Nolanahi ere, arreta ematen dieten pertsonekin egiten duten lehen elkarrizketan ez diete LGTBI gaiak galdetzen, eta ez dute hori jasotzeko



CNRko desplazamendu fitxetan. Ikastetxeetan lantzeko proposatzen duten fitxa Hezkuntza Ministerioarekin adosten dute, eta ez dute LGBTI gaia sartzen, nahiz eta prozesu horietan diharduten zenbait tutorek kontuan hartzen duten.

## MESA TRABAJO DE ACCESO A LA JUSTICIA POR MUERTES LGTB DE TEGUCIGALPA Y HONDURAS

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Kontseiluak Aldian behineko Ikerketa Unibertsalaren baitan emandako gomendioen ondorioz sortu zen LGTB heriotzak direla eta justiziara heltzeko Tegucigalpa eta Honduraseko lan-mahaia, LGTBen eskubideetan aurrera egiteko xedez. Oraindik justizia izan ez duten LGTBen hiletan ikerketak azkartzeko sortu zen.

Instantzia honetan LGTB erakundeak eta gobernuak elkartzeko dira; besteak beste, ATIC (Agencia Técnica de Investigación Criminal) –eragin sozial handia duten delitu larriak ikertzeaz arduratzen den Ministerio Publikoaren atal berezitua–, Ministerio Publikoaren Fiskalen unitatea eta Poliziaren Ikerketarako Departamendua (DPI).

Fiskaltzak eta LGTB erakundeek erabiltzen dituzten LGTBen hilketen datuak ez datoz bat. Fiskaltzak egiten dituen ikerketetan, zerrendako azkenak dira LGTB kasuak. Gehienetan, hilotzak jasotzean ez da jakinarazten LGTB kasu bat den edo ez, nahiz eta LGTB kolektiboetako pertsonak badakiten hildakoak kide zituzten edo ez eta erraz identifika daitekeen hildakoa LGTB den edo ez. Zaila da fiskaltzara jotzea, eta 24 ordu itxaron behar da salaketa jarri ahal izateko. LGTB kolektiboak fiskaltzarekin kolaboratzen du gorpuak ezagutzerakoan, nahiz eta ez den lekukoaren segurtasuna bermatzen.

LGTBen hilketak beste kolektiboetakoak baino gehiago ugaritu dira, eta kolektiborik ahulena da. Honoko hauek dira mahaiaren lanak: plangintza operatiboa sustatu, funtzionarioak trebatzeko plangintzak eta antzeko ekintzak diseinatu, hilketak gertatu diren tokietan jarduteko protokolo bat diseinatu, hildakoak LGTB modura identifikatu ahal izateko eta hala informaziorik ez galtzeko.

## ELKARRIZKETA GASPAR SANCHEZ EGIN

[Jennifer Avila Reyes-ek egindako artikulua (PRESENTES Agentzia)]

### **GASPAR SANCHEZEN BI BANDERAK: INDIGENA ETA LGTB, HONDURASEN**

Zazpi urte zituela ohartu zen Gaspar Sánchez ez zetorrela bat jaio zen jendarte heteropatriarkalarekin. Lenca herriko ume bat zen artean, Hondurasen zokoratuen dagoen herri batekoa, eta pobrezian bizi zen La Esperanza-n, hiriburua den Tegucigalpatik 191 kilometrora. “Zazpi urte nituenetik jakin izan dut, adin horrekin jakin nuen nire sexu bereko pertsonak nituela gustuko, baina ez nuen esan”. Eskolara gehiago joango ez zela deliberatzea izan zen errebelatzeko bere modua. Hamar urte zituelarik, Berta Cáceres (2016ko martxoaren 3an hil zuten buruzagi soziala) bere bigarren ama bilakatu zen. Berta Cáceresek giza eskubideen aldeko aktibismoaren eskolan murgilarazi zuen. Hala, [Copinh](#)-era (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras) bildu zen Gaspar; talde horrek, besteak beste, ingurunearen alde eta Lenca herriaren kultura berreskuratzeko lanetan dihardu.

Berta Cáceresk sortu zuen Copinh, 1993an. Eta hor ikasi zuen Gasparrek borrokatzen, bere ibaiak defendatzeko eta arrazakeria eta homofobiaren kontra egiteko. Copinh antipatriarkala eta antiarrazista baita. Bizimodua ateratzeko, Gasparrek opilak saltzen zituen kanean, eta arratsaldean elkartera joaten zen. “Txikia zarenean, ezin dituzu zeure erabakiak hartu. Hala, 18 urte bete nituenean, liberatu egin nintzen. Ilea tindatzen hasi nintzen, nahi nuen modura janzten, eta lagun askok esaten zidaten ezin zutela sinetsi. Baina Bertak esan zidan lotsarik ez izateko, animatu egin ninduen”, kontatzen du Gasparrek orain, 24 urte dituela.

[ARTIKULU OSOA HEMEN \[gaztelaniaz\]](#)